


DiKomA Proiektua

# EkoLinguA

*Ekologia Linguistikoaren bidez hizkuntz  
komunitatea Ahalmentzen laguntzeko*



**SOLAS-JOKOA**  
**JOKOAREN GIDA**



**EkoLinguA jokoaren GIDA:**

Zuzendaria: J. Inazio Marko

**Testuak:** Belen Uranga (Soziolinguistika Klusterra), Juanjo Perez (Elhuyar Aholkularitza)

**Diseinu Grafikoa:** Iñaki Gozalo Erro (Zirrimarra)

ISBN: 13 978-84-943708-3-0



**DiKomA proiektua:**

Zuzendaria: J. Inazio Marko

Sustapen Taldea: Eusko Ikaskuntza, Soziolinguistika Klusterra

**Garapen Taldea eta babesleak:** Eusko Ikaskuntza, Soziolinguistika Klusterra, Elhuyar Aholkularitza, Gipuzkoako Foru Aldundia, Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea (UEMA), Zumaiaiko Udala, Errenteriako Udala, Oñatiko Udala, Bermeoko Udala. Aholkulariak: Iñigo Arteatx (HUHEZI), Iñaki Martinez de Luna (EHU), Mikel Irizar (Komunikabideetan aditua) eta Oihan Moragues (parte-hartze teknikaria).


2015eko martxoa



# AURKIBIDEA

## EkoLingua SOLAS-JOKOA: GIDA

1. Sarrera .....	4
2. Hizkuntza-ekologiaz zer ulertzen dugun .....	5
3. EkoLingua jokoaren izaera eta helburua .....	7
3.1 Zer da? Hizkuntza-ekologiaren inguruan hitz egiteko mahai inguruko solas-jokoa da .....	7
3.2 Baliabide izaera, beste programa zabalagoetan erabiltzeko baliabidea .....	7
4. Jokoaren aplikazioa .....	8
5. Sekuentziak eta elementuak .....	9
01 SEKUENTZIA. OINARRIZKOA .....	9
Zehaztasunak .....	10
02 SEKUENTZIA. GUNE ZEHATZA .....	13
Zehaztasunak .....	14
03 SEKUENTZIA. KOMUNITATE OSOA .....	16
Zehaztasunak .....	17
Baliabideak .....	20



*EkoLinguA Solas-jokoa*, 2012 eta 2014 bitartean udalerrri mailan hizkuntz ekologiaren diskurtsoa sozializatzeko eta hizkuntz komunitatearen sistema ahalmentzeko xede nagusiarekin bideratutako **DiKoma Ekintza-iker-kuntza Proiektuaren** emaitza eta produktua da.

*EkoLinguA* hizkuntza-ekologiaren ideietan oinarritutako eztabaida pizteko edo argudioak lantzeko mahai-jokoa da. Argudioak osatzeko eta alderdi ludikoa lantzen laguntzeko informazioa aurkituko duzu dokumentu honetan, jokoari ahalik eta zuku interesgarriena eta dibertigarriena ateratzeko.


*EkoLinguA* edonoren esku egongo da; talde txikiek zein handiek erabili ahal izango dute, gaiaren inguruan dakitenek eta berri egiten zaienek.

*EkoLinguA* jokoa erabiltzeak emaitza zehatzak ekar ditzake, batez ere parte hartzen duten pertsona horiek izango duten hizkuntza-ekologiaren inguruko sentiberatzean.

*EkoLinguA* testuinguru zabalago batean ere erabili daiteke, testu-inguratze desberdinen eta parte hartzen dutenen dedikazio desberdinaren arabera.

Dokumentu honetan, *EkoLinguA* erdigune izanik, gaiaren sakontze-mailaren arabera hiru sekuentzia proposatuko dira, horietako bakoitza, testu-inguratze eta sakontasun-mailaren arabera bereizita; eta, batez, ere helburu den xede-talde zehatzen arabera antolatuta.

Aurrez, ordea, azal dezagun labur-labur hizkuntza-ekologiaz zer ulertzen dugun.





## HIZKUNTZA-EKOLOGIAZ ZER ULERTZEN DUGUN



Hizkuntza-ekologia **hizkuntza eta ekologia** lotzen dituen pentsamendua eta praktika da. Hizkuntzak bere ingurumen naturalarekin duen harremana begiratzen eta zaintzen du, hau da, hizkuntza bere ekosisteman ulertzen du.

Baina zein da hizkuntzaren **ekosistema**?

**Hiztun-komunitatearen gizarte-egitura** da hizkuntzaren ekosistema, eta gizarte-egituran hizkuntzari ematen zaizkion funtzioetan kokatzen da. Eta, jakina, espezie bizidunek ekosistema osasuntsua behar duten bezala, hizkuntzek ere, euren ekosistema osasuntsuak behar dituzte. Beste modu batean esanda, hizkuntza zehatz bat ondorengo belaunaldiei modu osasuntsuan transmititzeko, hizkuntza hori naturalki erabili behar da, bere funtzio pertsonaletan, kulturaletan eta sozialetan. Horrela izango da hizkuntza hori iraunkorra. Horregatik, ekologiak munduaren eta naturaren iraunkortasunaren alde aritzen den bezala, hizkuntza-ekologia hizkuntza guztiak bizirik eta osasuntsu garatzeko **hizkuntzen iraunkortasunaz** arduratzen da.

Hizkuntza-ekologiak **hizkuntza desberdinak kontaktuan** daudenean sortzen diren harremanak arreta handiarekin begiratzen eta aztertzen ditu. Kontuan izan behar da, kontaktuan dauden hizkuntzen artean, hizkuntza boteretsuago baten garatzeak bestearen galera ekartzen duela maiz. Baina, hori gerta ez dadin, hizkuntzen arteko **harreman ekologikoak** bilatzen dira.

Hizkuntza-ekologia hainbat printzipio etikotan oinarritzen da. Horien artean garrantzia berezia hartzen du hizkuntza guztien **balio unibertsalaren** eta **hizkuntza-aniztasunaren** printzipioek. **Mundua hizkuntza aniztuna da**, 6.500 hizkuntza inguru hitz egiten dira. Eta jakin behar da printzipio horien arabera, hizkuntza guztiak balio unibertsala dutela, gu guztion ondarea osatzen dutela, eta horregatik gizateria bere osotasunean dela ondarea zaintzearen arduraduna. Hau da, hiztun gutxiko hizkuntzetako hiztunek euren hizkuntza zaintzeko ardura dute, baina hiztun-kopuru handikoek ere, txikiagoak ez kaltetzeko ardura dute, munduaren aurrean. Izan ere, hizkuntza galtzeak mundua eta gizateria pobreagoa, ahulagoa, egiten du.

Gainera, badakigu **hizkuntza-aniztasuna gaur egungo gizarteak** pertsona eleaniztunek osatzen dituztela. Gizakiok eleaniztunak gara, hizkuntza berriak ikasten ditugu, horretarako lehendik dakiguna ahaztu behar izan gabe. Eta ezaugarri hori da aberasgarria, pertsonarentzat eta gizarteentzat. Hizkuntzek laguntzen dute harremanak zabaltzen, kultura desberdinak ezagutzen, artea ulertzen, pentsamendua aberasten, sentimenduak dibertsifikatzen, identitatea errotzen eta aukera ekonomikoak handitzen. Gaur egun, gure gizarteek eskatzen dute nazioartean erabilgarri den hizkuntza(k) hitz egitea. Gainera, inoiz izan den mugimendu demografiko eleaniztunagoek gure inguruetara hizkuntza asko ekarri dituzte, kanpora joaten garenean geurekin eramaten ditugun bezala. Horiek guztiak dira gure gizarteetako aberastasunaren seinale.

---

Ekologiaren ikuspegitik, harreman horietan hizkuntzen iraunkortasuna eta errespetuzko jokabideak sustatzea berebiziko garrantzia du, batez ere, egoera ahulagoan dauden hizkuntzen kasuetan; **tokian tokiko hizkuntzen iraunkortasuna** ziurtatzeko, eta baita **etorri berrien hizkuntzaren** aurrean interesa eta errespetua erakusteko.

Hizkuntzen arteko kontaktuen ondorioz, ohikoa da hizkuntza batek -bereganatzen dituen abantaila politiko edo sozialak tarteko- tokian tokiko hizkuntzekiko egoera desorekatuak sortzea, hizkuntza hori kaltetua edota galtzeko arriskuan jartzetarako. Gogoratu behar da gaur egun munduko hizkuntzen erdiak galtzeko arriskuan daudela. Eta kasu horietan, hizkuntza-ekologiaren ikuspegitik begiratuta, **berdintasunaren printzipioa** kontuan izatea ezinbestekoa da. Hau da, printzipio etiko horren arabera “egoera desberdinetan daudenak berdinean tratatzea ez da berdintasuna, injustizia baizik”. Horregatik bilatu behar da aukera berdinean izateko bidea, ekitate lortzeko modua; beharrezkoa da **egoera ahulagoan dauden hizkuntzen alde babes eta garapen neurriak hartzea** desoreka horien aurrean aukera berdintasunera heltzeko.


Ekologiaren ikuspegitik gainera, gizartearen benetako aurrerakuntza lortzeko, alderdi sozialaren eta ekonomikoaren garapena lurraren zaintzarekin uztartu behar dira modu integratuz, tokian tokiko antolakuntzari arreta berezia jarritz. Gizakiaren antolakuntza berri baten mesedetan aritzen da, beraz. Hau da, tokian tokiko komunitateen garapen kulturala zaintzea ezinbestekoa da. Eta horregatik, **subsidiaritate printzipioa** kontuan hartuta, arreta berezia jarri behar da tokian tokiko hizkuntzek egin dezaketena kanpotik etorritakoek egin ez dezaten. Horrela, tokian tokiko abe-

rastasunak sendotuko du munduko aniztasuna: *pentsatu globalean, aritu lokalean* izan daiteke lelo nagusia.

Pentsamendu ekologikoak gainera **elkartasunaren printzipioa** zabalitzen du gizartearen. Jendarte solidarioagoa eta arduratsuegia aldarrikatzen du. Hizkuntza desberdinetako hiztunen arteko elkartasuna lortu behar dela aldarrikatzen du, elkarren arteko engaiamendua, inplikazioa, elkarlaguntzea eta elkar elikatzea sustatu nahi du. Eta horrek bat etorri behar du **errespetuzko elkarbizitzarekin**. Hori guztia ondoren datozenei, bizitzeko aukera hobeak izan ditzaten, ingurumen osasuntsuagoa eskaintzeko helburuarekin.



## EKOLINGUA JOKOAREN IZAERA ETA HELBURUA



### 3.1. ZER DA? HIZKUNTZA-EKOLOGIAREN INGURUAN HITZ EGITEKO MAHAI INGURUKO SOLAS-JOKOA DA.

Jokoaren oinarri metodologikoa Europako Komisioak sortutako **PlayDecide** eztabaida-jokoaren eredua da (<http://www.playdecide.eu/>). PlayDecide eredu horren helburu orokorra gai zehatzen inguruan iritzi desberdinak dituzten pertsonen arteko gizarte mailako hausnarketak, arrazoitzeak eta eztabaidak erraztea da.

**EkoLingua Solas-jokoan PlayDecide** eredua egokitu dugu hizkuntza-ekologiaren inguruan hausnarketa, arrazoitzea eta eztabaida sortzeko, hizkuntza-komunitatea ahalmentzeko helburuarekin.

### 3.2. BALIABIDE IZAERA, BESTE PROGRAMA ZABALAGOETAN ERABILTZEKO BALIABIDEA

Gero eta baliabide eta material gehiago eta osoagoak daude herritarrak trebatzeko, motibatze eta era guztietako hizkuntza-egoerei modu egokian erantzuteko. EkoLingua solas-jokoa norabide horretan ekarpena egin nahi duen baliabide bat gehiago da. Hizkuntza-komunitatea diskurtso mailan ahalmentzea du helburu, edo beste modu batean esanda, herritarrek eduki ditzaketen argumentuak sendotzen laguntzea, betiere egunerokoan sortzen zaizkien egoera linguistikoei ahalik eta erantzunik egokienak ematen laguntzeko.

Publiko zabala du jomugan, espezializatua eta ez-espezializatua, euskaltzalea eta euskaraz ez dakiena; hau da, baliabide egokia da bai hizkuntza-ekologiaren edukietan sakondu nahi duten euskaltzaleentzat bai eta hizkuntza-ekologiaz informaziorik ez duen edozein herritarrentzat.

EkoLingua solas-jokoa karta-joko bat da, prozedura definitua eta baliabide zehatzak dituena, baina aipatu helburuak lortzeko beste hainbat baliabide eta ekimenekin osa daitekeena.

Jokoak sare ikuspegia du, herritarrak trebatzea helburu izanik, trebatutako herritarrak jokoaren dinamizatzaile eta ekintzaile bihurtzea bilatzen duelako.



## JOKOAREN APLIKAZIOA

### Non erabili eta zertarako

Komunitateko era guztietako herritarrak izan daitezke erabiltzaile. Jokoa-  
ren edukiak edozeinek ulertzeko eta bereganatzeko modukoak dira; gutxi  
gorabehera, 16 urtetik gorako herritarrentzat da egokia. Parte-hartzaileen  
arteko interakzioa bultzatzen duenez, taldeko kideek egiten dituzten ekar-  
penen sakontasun-mailak mugatuko du gogoetaren tamaina eta sakonta-  
suna.


EkoLinguA solas-jokoa egokia da esparru hauetan erabiltzeko:

- a) Euskararen aldeko elkarteetako kideak trebatzeko, hizkuntzaren ekolo-  
giaren alorrean sakontzeko, hizkuntza-ekologistak sortzeko.
- b) Eskola-eremua: DBHko ikasleak, irakasleak eta gurasoak. Gutxiene-  
ko adin bat eskatzen duenez, DBHtik gorako mailatan kokatu daiteke.  
Euskara-klaseetan burutu litekeen ekimena litzateke eta ikastetxearen  
proiektu pedagogikoan txertatu.
- c) Helduen alfabetatze-eremua. Hizkuntza-ezagutzak jasotzeaz gain, kar-  
ta-jokoaren bidez, soziolinguistikari eta hizkuntza-ekologiari buruzko  
ezagutza sakonak jaso lezakete ikasleek. Eskola-eremuan bezala, he-  
men ere, ikasketa-prozesuan txerta litezke edukiak.
- d) Herriko elkarteak. Herriko era guztietako elkarte eta erakundeetako ki-  
deekin bidera liteke.

- e) Era guztietako hiztunak. EkoLinguA solas-jokoa herritar euskaldunak  
ahalmentzea du helburu, baina egokia da baita ere euskara ez dakiten  
herritarrentzat, jokoak hizkuntza-egoera guztien gaineko solasaldi eta  
iritzi-truke lasaia ahalbidetzen duelako.



# SEKUENTZIAK ETA ELEMENTUAK



EkoLinguA solas-jokoari ahalik eta etekinik handiena ateratzeko hiru sekuentzia nagusi aurreikusi ditugu (**Oinarrizkoa**, **Gune zehatzak** eta **Komunitate osoa**) eta, guztietan, karta-jokoa da oinarri. Hauek dira desberdintasun nagusiak:


- a) Oinarrizkoak, dinamizatzaile-taldea trebatzea edota jokalariekin gaierikiko lehen hurbilketa egitea du helburu.
- b) Gune zehatzak, herriko talde, elkarte edota erakunde zehatzak aktibatzea.
- c) Komunitate osoak, udalerrri osoaren sentsibilizazioa bilatzen du.

Proposatutako hiru sekuentzia horiek moldagarriak dira, norbere behar eta aukeretara egokitu litezke, horrela, antolatzaileek erabakiko lukete deskribatzen diren sekuentzien azalpenei zehatz-mehatz jarraitu ala hainbat baliabide baliatu beste sekuentzia edo aukera batzuk sortzeko.

Gero eta gehiago dira euskararen inguruan hausnarketa sustatzen laguntzeko aurki daitezkeen era guztietako materialak eta prozedurak. Sekuentzietako bakoitzean horietako batzuk identifikatu eta proposatu dira, eta, jakina, eskura egon litezkeen bilduma txiki bat baino ez dira, egin litekeenaren erakusgarri. Hor ere antolatzaileek ikusiko lukete proposatutako zein baliabide erabili, betiere haien interesak, ezagutzak eta aukerak kontuan hartuta.

## 01 SEKUENTZIA. OINARRIZKOA

Herritar-talde zehatz bati bideratutako lanketa. Herritar sentsibilizatuak dira, kezka dute eta gaian sakontzea bilatzen dute. Herritar hauek prest daude ikasteko, trebatzeko eta dinamizatzaile-lanetan jarduteko. Kasu honetan, **gazteekin** burutu daitekeen sekuentzia irudikatu da, honela:



EkoLinguA karta-jokoa egin aurretik hitzaldia antolatuko da balizko parte-hartzaileentzat, gaian kokatzen hasteko. Une horretatik aurrera **#ekolin-gua** traola sortu liteke, egitasmoaren gaineko informazioa eta ikusmina hedatzen hasteko.

Hitzaldiarekin batera, sarean dauden hainbat bideo aukera litezke eta haien gaineko hausnarketa sustatu, norbere posizionamenduak eta kezka azalarazteko eta gainerako kideekin partekatzeke.

EkoLinguA solas-jokoaren ondoren, parte-hartzaileen iritziak eta landutako edukiak konpartitzeko eta hedatzeko ahalegina egin ahal izango da.

## ZEHAZTASUNAK


---

EkoLinguA solas-jokoa dinamizatzen trebatzeko lanketa da hau. Herritar-multzo jakin bati bideratuta dago, aurrerantzean, karta-jokoaren dinamizazioaren ardura hartuko duen herritar-taldeari, hain zuzen ere. Euskarak kezkatzen dituen herritarrak dira eta gogoko dute euskararen eta sozio-linguistikaren eremuan sakontzea, prest daude ikasteko eta urrats berriak emateko. Ezaugarri horiek dituzten edozein herritar izan daitezke (euskarra-elkarteetako kideak, irakasleak, jubilatutakoak, kirol-taldeetako begirale eta entrenatzaileak, guraso-taldeak...).

Taldetxo bat osatuko da, haiek trebatu eta euren burua prest ikusten dutenean, beste herritar batzuen dinamizatzaile-lanetan jarduteko. Sekuentzia hau gazte-talde batekin egiteko irudikatu da, baina esan bezala, beste edozein herritarrekin egin liteke; hala nola: irakasleak, euskara-taldeko partaideak, herritar euskaltzaleak, herriko pertsona "erreferenteak" eta abar. Betiere, genero ikuspegia aintzat hartuko da talde orekatuak osatzeko, eta ahalegina egingo da ahalik eta talde heterogeneoenak osatzen adinari eta gainerako ezaugarriei dagokienez.

Kasu honetan, esan bezala, hainbat gazterekin jarriko gara harremanetan, ekimenaren berri eman eta haiekin EkoLinguA karta-jokoaren saio bat egiteko. Azalduko zaie, nahi balute eta euren burua prest ikusiko balute, gero eurak beste talde batzuk dinamizatu ahal izango lituzketela, esaterako, gazte-lekuan, gaztetxean edo eskolan (Batxilergoan, esaterako).

Gazte horiek egiten duten lanketaren inpaktua handitzeko sare sozialak baliatuko dira, txioak bereziki. Jokoaren ezaugarrietako bat da hausnarketa ahalik eta herritar gehienengana zabaltzea. Txioek bide ematen dute horretarako.



## A) HITZALDIA DINAMIZATZAILEENTZAT

Hizkuntza-ekologiaren, EkoLingua karta-jokoaren eta jokoak bilatzen dituen helburuen berri emateko izango litzateke hitzaldia. Hitzaldiak izaera irekia izango luke, baina ahalegin berezia egin beharko litzateke, interesa duten eta "gako" izan daitezkeen gazteekin (herritarrekin) harremanetan jarri eta haien asistentzia bermatzeko. Oso garrantzitsua izango da balizko dinamizatzaile-taldea ahalik eta heterogeneoena izatea.

(#ekolingua traola: ikusi c) Txioak atala)

## B) BIDEOA

Gero eta material gehiago dago sarean hizkuntza-portaeren gainean hausnartzeko. Hainbat materialen bilduma egin eta horiek hedatzeko ekimena da hau. Hainbat erataria egin liteke: sare sozialak baliatuz, tokiko komunikabideen bidez, gune jakinetara helaraziz... Betiere material horiei era askotako erabilera eman dakieke; bi azpimarratuko dira:

- Girotzeko, sekuentziaren testuinguruan kokatuta, EkoLingua karta-jokoan parte hartzera sustatzeko.
- Sakontzeko, gaian kokatzeko, hurbilpen gisa, gogoeta sustatzeko.

(Oharra: ikusi, bideo eta gainerako baliabideei buruzko atala, dokumentuaren amaieran)

## C) TXIOAK

Txioen bidez gazte (herritar) gehiagorengana heltzea lortu nahi genuke. Sare sozialek gaur egun duten eragina aintzat hartuta. Txioek hainbat aukera ematen dute:

- Karta-jokoa egin aurretik, ekimenari buruzko mezuak zabaldu.
- Karta-jokoaren erronken txartela (laranja) baliatu, parte-hartzaileek irakurritako edukiei buruzko txioa idazteko: *idatzi txio bat orain arte irakurri dituzun edukiei buruzkoa.*
- Parte-hartzaileen iritziak bidez grabatu eta esteka txio bidez zabaldu.

## D) EKOLINGUA KARTA-JOKOA

EkoLingua solas-jokoaren saio bat egingo da, jokoaren karta didaktikoaren jarraibideak aintzat hartuz. Orain arteko esperientziari erreparatuta, mahai bakoitzean 6 jokalariko taldeak (dinamizatzailea barne) osatuko dira. Jokoak 90 minutu inguru irauten duela hartuta, kopuru hori da egokiena parte-hartzaile guztiek hitz egiteko, eta besteekin elkarrizketa lasaia izateko.

Jokatzeko, toki lasai eta eroso bat aukeratu da, zaratarik gabea, argiztapen egokiarekin. Mahai on bat izatea ere oso garrantzitsua da; kontuan hartu parte-hartzaile bakoitzak A3 tamainako tapiza izango duela esku artean eta horrez gain, kartak baliatuko direla batera eta bestera. Hori dela eta, hobe mahai handia txikia baino.

---

## E) BIDEOA

Lanketa honi amaiera emateko, interesgarria litzateke EkoLinguA karta -jokoaren partidari zehar irudiak hartzea eta amaieran, parte-hartzaileei euren iritziak eskatzea. Horiekin bideo labur bat editatu eta sare sozialen bidez hedatu liteke.

Ekimenaren inpaktua handitzeko baliatu daitezke bideoa; batetik, beste gazte batzuk parte-hartzera animatzeko; eta, bestetik, gaiari buruzko eztabaida zabaltzeko eta ideien trukerako beste bide bat gisa.

Parte hartzaileei honako galderak egin dakizkieke:

- a) *Zer azpimarratuko zenuke EkoLinguA karta-jokoari buruz?*
- b) *Zer ikasi duzu? Zerk eman dizu atentzioa? Zer zenekien hizkuntza-ekologiari buruz?*
- c) *Jokoa egin aurretik baino argumentu hobekoak dituzula uste al duzu?*
- d) *Balio al du jokoa herritarrek euskararekin duten ikuspegia hobetzeko eta diskurtsoa indartzeko?*
- e) *Gustura aritu al zara? Ondo pasa al duzu?*
- f) *Animatuko al zinateke joko honen dinamizatzaile lana egitera?*

(Oharra: irudiak hartu aurretik datuen babeserako legearen berri eman eta irudiak hartzeko baimena eskatuko diegu).



## 02 SEKUENTZIA. GUNE ZEHATZA

Ikuspegi irekiarekin planteatutako dinamika; herriko talde edo elkarte zehatzetako kideei bideratuta dago nagusiki (eskola, kultur-talde, gaztetxe, bulego, adinekoen elkarte...), baita interesa erakusten duen herritar orori ere. Talde edo elkarteetako balizko parte-hartzaileek ez dute zertan ezagutzarik edota interes berezirik izan behar, esaterako, soziolinguistikaz. Beste modu batean esanda, euskararen egoerari buruzko hitzaldi batean berez parte hartuko ez luketen herritarren inplikazioa bilatzen du baita ere lanketa honek.

Hiztunen ezaugarriei dagokionez, era guztietako herritarrak ditu jomugan: euskaldunak, euskara ikasleak edota euskara ez dakitenak. Antolatzaileek bi erataria bilatuko dute herritarren parte-hartzea; batetik, harreman zuzenaren bidez, talde/elkarteetako ordezkariekin zuzeneko harremanak sustatuz ekimenaren berri eman eta parte hartzera gonbidatzeko; bestetik, deialdi irekien bidez, interesa izan lezakeen edozein herritarrek parte hartu ahal izateko.

ekoLingua solas-jokoa egin ondoren, edukietan sakontzeko bideak landuko dira, era askotara: bideoen bidez, karta-jokoaren eduki jakin batzuk oinarri hartuta beste partida bat jokatuz, oinarrizko adostasunak eraikitzen ahaleginduz, konpromisoak hartuz eta abar.

- A) PARTE-HARTZAILE ZEHATZAK
- Kultur elkarteak (ez dute zertan euskaraz jardun behar)
  - Euskaltegiak
  - Eskolak



- B) BIDEOAK
- Sarean daudenak baliatu
  - Bideo laburrak sortu (mikroistorioak)

- C) EKOLINGUA
- Edukiak aukeratuta

E) ZORU KOMUNA

- F) KONPROMISO PERTSONALAK
- Askatasunez hartu

- G) OPARIA
- Eduki-kontzeptu garrantzitsuenak parte hartzaileentzat

## ZEHAZTASUNAK

---

Sekuentzia hau abiatzeko, aurretik hainbat dinamizatzaile trebatu dira, lehenbiziko sekuentziaren bidez.

Sekuentzia hau herriko talde edo elkarte zehaztetako kideei bideratuta dago; hala ere, deialdiak modu irekian egingo dira, interesa izan lezaketen herritarrek ere parte hartu ahal izan dezaten.

## PARTE-HARTZAILEAK

Taldeak edo elkarteak era askotakoak izan daitezke, bai euskalgintzarekin lotutakoak bai euskararekin inolako loturarik ez duten bestelako elkarteak ere; hala nola: herriko kultur taldeak, kirol taldeak, abesbatza, espainiar estatuko autonomietako edo beste herrialde batzuetako kultur elkarteak, elkarte gastronomikoak, emakume-taldeak, gobernuz kanpoko erakundeak, euskaltegiak eta abar. Hori dela-eta, hiztunen ezaugarri dagokionez, era guztietako herritarrak ditu jomugan: euskaldunak, euskara ikasleak edota euskara ez dakitenak.

Talde edo elkarte horietako balizko parte-hartzaileek ez dute zertan ezagutzarik edota interes berezirik izan behar esaterako, soziolinguistikaz. Horrela bada, euskal hiztunekin lan egiteaz gain, euskaraz dakitenak, euskaraz erdizka dakitenak eta ez dakitenekin euskararen sustapenean jarduteko espazioak eta egitasmo berriak sortzen asmatu behar da. Herritar guztiek dutelako lekua, eta guztiek dutelako zeresana, zer irakatsia eta zer ikasia.

Antolatzaileek bi eratara bilatuko dute herritarren parte-hartzea; batetik, harreman zuzenaren bidez, talde/elkarteetako ordezkariekin zuzeneko harremanak sustatuz ekimenaren berri eman eta parte hartzera gonbida-

tzeko; bestetik, deialdi irekien bidez, interesa izan lezakeen edozein herritarrek parte hartu ahal izateko.

## EKOLINGUA KARTA-JOKOA

Oharra: aurreko sekuentziako jarraibide orokorrei jarraituko zaie.

## SAKONTZEA

EkoLinguA solas-jokoa egin ondoren, edukietan sakontzeko bideak landuko dira, era askotara:

- **Bideoak.** Aurreko sekuentzia gisan, hainbat bideo balia daitezke, antolatzaileei egokien irizten zaizkienak: umoredunak, hitzaldietatik ateratakoak...
- **Beste partida bat.** Karta-jokoaren eduki jakin batzuetan sakonduz. Parte-hartzaileek eta antolatzaileek erabaki lezake karta-jokoko eduki batzuetan sakondu nahi izatea. Horretarako, kartak aukeratu eta eduki horiei buruzko informazio zehatzagoa bilatu liteke bigarren partida horri begira.
- **Oinarrizko adostasunak.** Parte-hartzaileak eta antolatzaileak saia litezke, esaterako, dekalogo moduko bat idazten, karta-jokoaren edukiak aintzat hartuta oinarrizko adostasunak eraikitzen balia litekeena. Dekalogo horrek joko handia eman lezake, esaterako, hainbat eragile-aren artean adostasunak eraikitzen laguntzeko.



- **Konpromisoak.** Parte-hartzaileek aurretik landutako konpromiso zehatz batzuk sinatzeko lanketa egin lezakete talde-mailan, izaera iraunkor samarra izango luketenak.

## OPARIA

Prozesu osoaren amaieran, parte-hartzaile bakoitzari detaile txiki bat emango zaio, karta-jokoko eduki garrantzitsuenen bildumarekin osatutakoa.

### A) KOMUNIKAZIOA

Sekuentzian honetan ere sare sozialen erabilera aktiba liteke, ekimenaren inpaktua areagotzeko. Horrez gain, tokiko komunikabideen elkarlana bultzatuko da baita ere, bereziki oinarrizko adostasunak eta konpromisoak argitara emateko.



### 03 SEKUENTZIA. KOMUNITATE OSOA

Orain arteko lan-dinamika osatu eta komunitate osora hedatzea du helburu sekuentzia honek. Udalerraren, komunitate osoaren sentsibilizazioa bilatzen du; herriko elkarten sinergia eta konplizitatearen bidez, haien laguntza eta inplikazioarekin komunitate osoan eragiteko.

Herriko elkarte eta eragileez gain, tokiko komunikabideen inplikazioa eta konplizitatea bilatuko da; oso garrantzitsua izango da horretarako tokiko komunikabideak aintzat hartzea hasieratik, egitasmoaren magnitudeaz eta helburuez jabetzeko eta eragile aktibo garrantzitsu bilaka daitezten. Komunikabideei informazioa helarazteaz gain (prentsa-ohar edo prentsaurrekoen bidez), haiekin elkartu eta egitasmoaren nondik norakoak azaltzeko tartea hartuko da, eta ahal denetan, ekimen osoaren jarraipena egiteko modurik egokienak adostu.

EkolinguA solas-jokoaren partidak egitearekin batera, parte-hartzaileen inplikazioa lortzeko eta bakoitzak bere eragin esparrutik helburu orokorrarekin bat egiteko saiakerak egingo dira, betiere eragile aktibo bihurtzeko. Asko izan litezke eragile-talde bakoitzak egin ahal izango lituzkeen ekimenak, tokiko ezaugarrien eta bakoitzaren gaitasun eta inplikazio-mailaren menpe daudelako; adibide gisa, honakoetatik abia liteke: kirol-probak, musika, herria apaintzea, herri-bazkari...

Horien bidez, emaitza bat, kolofoa irudikatzeko ahalegina egingo litzateke. Aurretik inplikaturako herritarren parte-hartzearekin eta udalerrri osora zabaldua.



#### A) BIDEOAK

- Gaia azaltzeko, kokatzeko
- Xede-taldeetara bideratuak
- Hainbat eratako bideoak

#### B) EKOLINGUA

- Xede-taldeekin
- Ekintza osagarriak
  - Musika
  - Jatekoak
- Talde zehatzei egokitua

#### C) ESPERIENTZIAK KONPARTITU ETA SOZIALIAZATU

- Parte-hartzaileen iritzia: bideoa
- Sare sozialak

#### D) ERAGILEEN INPLIKAZIOA

- Amaiera ekitaldirako ekimenak diseinatu

#### E) UDALERRIA AKTIBATU

- Emaiza artistikoa: herria dekoratu
- Kontzeptu gakoak iruditara
- Hizkuntza ekologistak

### Tokiko komunikabideen aliantza

## ZEHAZTASUNAK

Sekuentzia hau abiatzeko, aurretik hainbat dinamizatzaile trebatu dira, lehenbiziko sekuentziaren bidez.

Sekuentzia honek jauzi bat ematen du aurrekoetik, haietan azaltzen direnetan oinarritzen da gune zehatzetatik komunitate osora jauzia emateko.

## PARTE-HARTZAILEAK

Bi eratakoak izango dira, interbentzioak izango dituen bi une nagusien arabera. Hasiera batean, interbentzio fokalak egingo dira, 2. sekuentzian antzera, hori dela eta, eragindako talde eta elkarteetako kideak izango dira nagusiki; ondoren, haiekin egindako lanaren, eraikitako konplizitatearen eta metatutako sinergien bidez komunitate osoan eragitea eta hura aktibatzea izango du helburu. Interbentzio honen amaieran, ahalik eta herritar gehienengan eragiteko ahaleginak egingo dira.

Interbentzioaren hasieran, beraz, herrian antolatuta dauden talde eta elkarteetara joko da, haietako kide batzuk jokoan parte hartzera animatzeko. Hortik aurrera, aukera eta hipotesi ugari sortzen dira, baina bi azpimarratuko dira jarraian, sor litekeen dinamikaren erakusgarri:

- Talde inplikatuak. Eman beharreko azalpenak eman ondoren, talde bakoiko kideekin karta-joko bat egin da. Gustatu zaie eta elkarteetako kide gehiagorekin egiteko konpromisoa hartu dute. Hasierako dinamizatzaileez gain, lehenbiziko karta-jokoan parte hartu dutenetako batzuk prest agertu dira dinamizatzaile-lanetan aritzeko. Ondorioz, elkarte bakoitzeko kide gehiagorekin hainbat mahai-joko antolatu dira, karta-partida handia jokatzeko, mus-txapelketen antzera. Bakoitza bere elkartearekin, nahiz denak elkarrekin areto jakin batean.
- Sarea. Hainbat taldeetako ordezkariak azaldu zaie eta haiekin partida bat jokatu da. Ondoren, talde/elkarteetako bakoitzean, karta-joko partida bat antolatu dute, gutxienez.

---

Modu horretara, asko dira aste batzuetako tartean EkolinguA solas-jokora hurbildu diren herritarrak.

## **TOKIKO KOMUNIKABIDEAK**

Tokiko komunikabideen inplikazioa eta konplizitatea bilatuko da; oso garrantzitsua izango da horretarako tokiko komunikabideak aintzat hartzea hasieratik, egitasmoaren magnitudeaz eta helburuez jabetzeko eta eragile aktibo garrantzitsu bilaka daitezen. Komunikabideei informazioa helarazteaz gain (prentsa-ohar edo prentsaurrekoen bidez), haiekin elkartu eta egitasmoaren nondik norakoak azaltzeko tartea hartuko da, eta ahal denetan, ekimen osoaren jarraipena egiteko modurik egokienak adostu.

Kolaborazio interesgarria abia daiteke: egitasmoari buruzko informazioa (elkarrizketak), saioetan parte hartu eta haien gaineko informazioa zabaldu, parte-hartzaileei elkarrizketak, adituen elkarrizketak, erreportajeak, lehiaketak eta abar.

## **A) BIDEOAK**

Bideoen bidez bilatuko da gaian kokatzen laguntzea, hurbilpen gisa. Horretarako, antolatzaileek aukeraketa bat egingo dute. Bideo horien bidez interesa eta jakin-mina pizten ahaleginduko dira.

## **B) EKOLINGUA**

Parte-hartzaileen atalean azaldu den gisan, haien inplikazioa lortzeko eta bakoitzak bere eragin esparrutik helburu orokorarekin bat egiteko ahaleginak egingo dira.


EkoLinguA solas-jokoa garatzearekin batera, saiakera egin daiteke taldeek egiten duten ahalegina indartzen, zenbait ekintza osagarri antolatzen; hala nola: saiaren amaieran mokaduren bat; musika, saioan zehar edo ondoren; karta-jokoa jokatzen den bitartean, kontzeptu gakoaren inguruan herriko marrazkilariek murala sortu; eta abar.

## **C) ESPERIENTZIAK KONPARTITU ETA SOZIALIZATU**

Aurrerago aipatu den bezala, EkoLinguA solas-jokoaren partidak jokatu ondoren, asko ireki daiteke ekimena eta era askotako norabideak hartu, parte-hartzaileek jaso dutenaren, haien gogoaren, interesaren eta beste hainbat baldintzaren arabera.

Atal honetan, berebiziko garrantzia izan dezakete bai sare sozialen erabilerak (01 sekuentzian azaldu den gisan), bai tokiko komunikabideekin jorratzen den lanketak.

Sarreran aipatu dugu tokiko komunikabideen inplikazioa eta konplizitatea bilatuko dela, eta oso garrantzitsua dela tokiko komunikabideak hasieratik aintzat hartzea, egitasmoaren magnitudeaz eta helburuez jabetzeko eta eragile aktibo garrantzitsu bilaka daitezen. Interbentzioaren une ho-



netan, aukera ugari sortzen dira: parte-hartzaileei elkarrizketak (aniztasuna bermatu); erreportajeak; hizkuntza-ekologiaren eduki gakoak gaineko artikulatuak...

## D) ERAGILEEN INPLIKAZIOA

Sortu diren dinamiken sinergia baliatzeko, ordura arte inplikatu diren herritarren arteko bilera antolatzeak ahalegina egin daiteke: Bilerak horrek bi atal nagusi izango ditu:

- a) Ordura arte tokian-tokian egindakoaren berri konpartitu
- b) Elkarrekin amaiera-ekitaldia antolatzeak aukerak aztertu

Bilerak horretara, gauzak argi eramango dituzte antolatzaileek; argi izan zer emaitza lortu nahi den bileratik eta ondo antolatu edukiak eta denborak. Parte-hartzaileen iritziak eta sententziak jasotzearekin batera ahalegina egingo da, amaiera-ekitaldirako irizpide nagusiak adostea. Horretarako, asko lagunduko du antolatzaileek hainbat aukera aurreikustea; esaterako: data-aukerak, balizko ekimenen zerrenda, baliabideen aukera, balizko kolaboratzaileen zerrenda eta abar. Amaitzeko, talde eragile bat sor liteke, aurrerantzean egin beharrekoak kudeatzeko.

## E) UDALERRIA AKTIBATU

Era askotakoa izan daiteke azken ekimenak har dezakeen izaera, baina guztiek helburu bera izan behar dute jomugan: ahalik eta herritar gehie-

nengan eragitea, zuzenean nahiz zeharka; hau da, antolatzen diren ekitaldietan (fokalak zein masiboak) parte hartuz, herria dekoratuz, sare sozialen eraginez, komunikabideen bidez, herria, taldeak eta elkarteak dekoratuz (kartel eta muralen bidez) eta abar.

Azken ekitaldi horiekin komunitatearen aktibazioa bilatuko da, giro bat sortu eta hainbat herritarren inpaktu bat erdiestea. Hori lortuz gero, aztertu ahal izango da zer-nolako aukerak sortzen diren abiatutako dinamikarekin, aurrerantzean ere bide eta aukera berriak jorratzen jarraitzeko.


Ildo horretatik, garrantzitsua izango da ikustea zenbat herritar dagoen prest gaian sakontzen jarraitzeko, "hizkuntza-ekologistarik" ba ote dagoen. Haiekin elkartu eta kolaborazio-aldi berri bati ekin dakioke lan-ildo berriak definitzeko.

# BALIABIDEAK

Sarean hainbat eta hainbat baliabide dago, gero eta gehiago, erakundeek nahiz elkarte eta herritarrek sortutakoak. Jarraian, horietako hainbaten estekak jarri dira eskuragarri, sarean aurki daitekeenaren adibide gisa.

## BIDEOAK

- Aretxabaletako *Loramendi* elkarteak sortutako hainbat bideo daude eskuragarri; esketzak dira, hainbat egoera irudikatzen dituzte, gogoeta sustatzeko; hala nola:
  - **Futbol zaleak gaztelaniaz:** [https://www.youtube.com/watch?v=2Gfa\\_KxXVOM](https://www.youtube.com/watch?v=2Gfa_KxXVOM)
  - **Euskaldun berriaren bakardadea:** <https://www.youtube.com/watch?v=3RkcMJ1c-zI>
  - Gurasoak hizkuntza-eredu: <https://www.youtube.com/watch?v=kxFS12a5-FI>
  - Terapia: <https://www.youtube.com/watch?v=S1VBzfoScuU>
- Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Gaztezulo aldizkariak sustatutako Ika Mizka ekimena. Eta hik? Nola bizi dunk euskara?
  - <https://www.youtube.com/watch?v=osP2e1PxM2o>
  - <https://www.youtube.com/watch?v=N5AOJULVVEg>
  - [www.ikamizka.com](http://www.ikamizka.com)
- Poziktibity, Eusko Jaurlaritzak euskararen erabilera sustatzeko abian jarritako kanpaina, pertsona ezagunen arteko solasaldiak dira, euren bizipenak azaltzen dituzte:
  - <http://www.poziktibity.com/>
- Adituen hitzaldiak:
  - Belen Uranga: <https://www.youtube.com/watch?v=yBIhU7rBCQ4>
  - <https://www.youtube.com/watch?v=JC9nOHL7bHc>
  - Jon Sarasua: <https://www.youtube.com/watch?v=zaCDn9vBJvg>
  - Lurralde eta hizkuntza jardunaldiak. Arnasguneak. [https://www.youtube.com/watch?v=4HA6dS8AK1g&feature=em-upload\\_owner](https://www.youtube.com/watch?v=4HA6dS8AK1g&feature=em-upload_owner)
  - *Zergatik ez?* tailerra Biarritzen: [http://www.kanaldude.tv/ZAZPI-emankizuna-Zergatik-ez\\_v3184.html](http://www.kanaldude.tv/ZAZPI-emankizuna-Zergatik-ez_v3184.html)
- Tribuaren berbak saioko bideoak:
  - Hizkuntza bakarra munduan? <http://www.eitb.eus/eu/telebista/programak/tribuaren-berbak/euskararen-garrantzia/bideoak/oso/2648746/munduan-hizkuntza-bakarra-izatea-onerako-txarrerako-litzateke/#comentarios>
  - Adina ez da muga euskara ikasteko: <http://www.eitb.eus/eu/telebista/programak/tribuaren-berbak/bideoak/oso/2708564/bideoa-adina-ez-da-euskara-ez-ikasteko-aitzakia/>
  - Atzerritik etorri berri diren haurrak euskara ikasten: <http://www.eitb.eus/eu/telebista/programak/tribuaren-berbak/bideoak/oso/2708610/bideoa-talato-zeina-zongo-eta-carama-mohamed-euskaldun-berriak/>
  - Bernardo Atxaga: <http://www.eitb.eus/eu/telebista/programak/tribuaren-berbak/euskararen-garrantzia/bideoak/oso/2649040/bideoa-atxaga-lanerako-nire-etxea-izan-da-euskara/>
  - Amaia Antero: <http://www.eitb.eus/eu/telebista/programak/tribuaren-berbak/euskararen-garrantzia/bideoak/oso/2648908/hizkuntzak-identitate-indibiduala-eta-kolektiboa-erakitzen-digu/>
  - Belen Uranga, hizkuntza-ekologiaz: <http://www.eitb.eus/eu/telebista/programak/tribuaren-berbak/euskararen-garrantzia/bideoak/>



[osoa/2648824/hizkuntza-ekologikoa-hizkuntza-guztien-iraunkortasuna-lortu-nahian/](http://osoa/2648824/hizkuntza-ekologikoa-hizkuntza-guztien-iraunkortasuna-lortu-nahian/)

- Euskaraz hitz egiteko motibazio metodoak: <http://www.eitb.eus/eu/telebista/programak/tribuaren-berbak/bideoak/bideoak/osoa/2379730/bideoa-jendeak-euskaraz-hitz-egiteko-motibazio-metodoak/>
- Hitzunen artean erakargarri izateko metodoak: <http://www.eitb.eus/eu/telebista/programak/tribuaren-berbak/bideoak/bideoak/osoa/2379520/bideoa-euskaraz-hitzunen-erakargarri-izateko-metodoak/>
- Kanean euskara ez erabiltzeko arrazoiak: <http://www.eitb.eus/eu/telebista/programak/tribuaren-berbak/bideoak/bideoak/osoa/2379496/bideoa-jendeak-kanean-euskaraz-ez-egiteko-arrazoiak-sailkatzen/>
- AEK, *eman euskara elkarri*, 18. Korrikaren harira AEKk ekoizitako bideoa:
  - <https://www.youtube.com/watch?v=HI6-HnEkg64>
- Beste batzuk:
  - Ekogunearen webgunea Hizkuntza-ekologiaz. Hainbat material eta Itsaso Olaizolari erlarrizketa: <http://www.ekogunea.net/proiektuak/proiektua/hizkuntza-ekologia>
  - TVE2eko Redes, hizkuntzen bilakaeraz: <https://www.youtube.com/watch?v=g9QIEXSxFfc>

## BESTELAKO BALIABIDEAK

Bideo horiez gain, beste hainbat baliabideren zerrenda osatu dugu, baita hau ere aurki daitekeenaren erakusgarri.

- Gure hizkuntzaren historia, gure historiaren hizkuntza; <http://www.euskarajendea.com>
- Iñigo Iñurrategi, Euskal Kulturgintzaren Transmisioa aditu tituluaren hizkuntz ekologiaz Power pointa: <http://www.slideshare.net/Joxe/hizkuntz-ekologia>
- Lingolang.net. Aniztasuna eta euskara ikastetxeetan lantzeko. <http://www.lingolang.net/>
- Hesiak gaintzen dokumentala, euskarara hurbildu direnei esker oneko bideoa: <http://vimeo.com/55430677>
- Garabidek euskararen berreskuratzearen inguruan egindako dokumentalak: <http://www.garabide.eus/euskara/euskararen-berreskuratzea/dokumentalak>